

Nebria lafresnayei-ren (Serville, 1821) presentzia Itxina mendigunean (Orozko-Bizkaia). (Coleoptera: Caraboidea, Carabidae, Nebrinae).

Presence of *Nebria lafresnayei* (Coleoptera: Caraboidea, Carabidae, Nebrinae) in Itxina Mountain (Orozko-Biscay).

F. HIRIBARNEGARAI*



LABURPENA

Gorbeako Itxina mendikatean, Orozko-Bizkaia, *Nebria lafresnayei* karabidoaren presenzia aipatzen da. Espezie hau, Massif Central, Pirineo eta Kantauriar mendikatean bizi da, batez ere alpetar mendi-mailan. Aipamen honek, Penintsulako bi populazioen arteko kone-xioa egiten du.

- GAKO-HITZAK: *Nebria lafresnayei*, Carabidae, Bizkaia.

ABSTRACT

In this article, *Amanita lepiotoides* Barla is described, which was found in the Basque Country, Spain. Macroscopical and microscopical descriptions are based on the collected examples.

- KEY WORDS: *Nebria lafresnayei*, Carabidae, Biscay.

RESUMEN

Artikulu honetan *Amanita lepiotoides* Barla deskribatzen da, Euskal Herrian, Spainia, aurkitu den espeziea. Egindako bilketaren ohar makroskopiko eta makroskopikoak ematen dira.


- PALABRAS CLAVE: *Nebria lafresnayei*, Carabidae, Bizkaia.



* P. Mendibil 24, 2º Eskm., E48930 • Getxo-Bizkaia

SARRERA

Nebria lafresnayei Mendebalde Europako alpetar eta goimendi eremuko karabidoa da (JEANNEL, 1941). Frantziako Massif Centralekik, eta Pirineoan zehar, kantauriar Mendikatera hedatzen da. (1.Irudia).



- 1.Irudia.- *Nebria lafresnayei* espeziearen banaketa.
- N. lafresnayei foudrasi.* (puntu marroiak).
 - N. lafresnayei ferruginipes.* (puntu beltzak).
 - N. lafresnayei lafresnayei.* (puntu urdinak).
 - N. lafresnayei cantabrica.* (puntu gorriak).
 - N. urbionensis* (trianguluak).
 - N. leonensis* (karratua).

Figure 1.- Distribution of *Nebria lafresnayei*

- N. lafresnayei foudrasi.* (brown point).
- N. lafresnayei ferruginipes.* (black point).
- N. lafresnayei lafresnayei.* (blue point).
- N. lafresnayei cantabrica.* (red point).
- N. urbionensis* (triangle).
- N. leonensis* (square).

Azpiespezie batzuk daude:

- *N. lafresnayei lafresnayei, s.str.*, Serville, 1821. Pirineoko eremu alpetar eta azpialpetarrak, Andorratik, eta Ori mendian zehar, Andia, Aralar eta Arabako Urkilla mendikatera hedatzen dena.
- *N.lafresnayei ferruginipes*, Pic, 1903. 2000m.tik goranzko lekuak Kataluniar Pirineoan.
- *N. lafresnayei foudrasi*, Dejean, 1828. Kolonia isolatuak Massif Centraleko tontor altuenetan (ABERLENC & al., 1985).
- *N. lafresnayei cantabrica*, Miré, 1964. Kantauriar Mendikatean. Alpetar eta goimendiko eremutan banatua (MIRÉ, 1964).

ESTUDIATUTAKO MATERIALA

Orozko, Bizkaia, 2 ale, (2005-05-16) eta (2006-07-19).


U.T.M. koordenadak: E 484938,410 / N 4769153,535. 1010 m.

EZTABAINA



2. Irudia.- Itxina mendiguneko *Nebria lafresnayei*.

Figure 2.- *Nebria lafresnayei* from Itxina.



3.Irudia.- *Nebria lafresnayei* pronotoak.

Figure 3.- *Nebria lafresnayei* pronotum.

Nebria lafresnayei (2.Irudia) glaziar jatorria duen multzo bat da. Gaur egunean, Mendebalde Europako 1000m.ko altueratik goranzko laino iraunkorrez inguratutako tontor hotz eta hezeetan kokatzen da. Gorbeako hau, “cantabrica” subespeziearen multzoan, (3.Irudia) INSERTAR. fig. 3 itxuraz, sar dezakegu. Bizkaiko lehenengo aipamena izateaz aparte, Itxinako karsten agerpenak, betetzen digu Pirineo eta Kantauriar Mendikateen artean oraindain zegoen hutsunea.

Taxoi hau, itxuraz, irmoki erlazionatuta dago *N. urbionensis*-ekin (ARRIBAS, 1991), Urbion mendigunekoa, eta *N. leonensis*-ekin (ABMANN & al., 2000), La Cabrera Baja eta Teleno mendikateetako, Leonen.

Massif Centralean, eta Auverrian, “chirats” ize-narekin ezagutzen diren granitozko hartxingadiak, elurtegi iraunkorren kontaktuan, biotopo ohikoekin izaten dira. Pirineotan (DENDALETF-CHE, 1973) era berean, Alpeetako *N. Oreonebria* castanearearen antzera, glaziar eta elurtegien ondoan.

Aitzitik, Gorbeakoa, eta beste euskal mendietan (GALÁN, 1993) agertzen den subespeziea, halabeharrez, kobazulo karstikoen ahotara egokituta dago (ORTUÑO & al., 2003). Gehienetan troka edo dolinaren hondoetan, ilunpetan eta elurtegi iraunkorren ondoan, non elurra Maiatz edo Ekaina arte mantentzen den.

Hurbileko landaredia, megaforbia usu eta huts batez konposatuta dago, non hausnartzaleek, leku helezinak izanik, ezin eragin dezakete.

Adenostyles alliariae subsp. *pyrenaica*, nagusitzen da inguruan, *Lamiastrum galeobdolon*, *Saxifraga hirsuta* eta beste landare desberdin ugariekin.

Giro orokorra “fagion” kaltzikolan kokatu daiteke, lizar, hostazuri eta hagini artean.

ESTATUSA

Oraingoz, eta hurbileko atlantiar-mediterraneo isurialdeko mendietan aurkitzen denaren zain, bere populazioa oso urri bezala kontsidera dezakegu.

Hala eta guztiz ere, bere habitata, hain trokatsu izanik, mendizale eta turisten presioaren urrun geratzen da eta ez dugu premia larrian ikusten espezie honen etorkizuna.

ESKERRONAK

Nire esker beroenak Leticia Martínez de Murgia entomologia saileko arduradunari, Aranzadi Natur Zientzi Elkarteko materialak estudiatzentz laguntzeagatik.

BIBLIOGRAFÍA

- ABERLENC, H.P., J. BALAZUC, P. BRUNEAU DE MIRE & P. REVEILLET. 1985. Les *Nebria lafresnayei* Serville (Col. Carab. Nebriidae) des Cévennes. *Bulletin Société Linnéenne de Lyon*, 54 (7): 165-169.
- ABMANN, T., D.W. WRASE & J.P. ZABALLOS. 2000. A new species of *Nebria* Latreille, 1802 from the Montes de León, North-West Spain (Coleoptera, Carabidae, Nebriinae). *Graellsia*, 56: 63-69.
- ARRIBAS, O. 1991. *Catálogo de los coleópteros caraboideos del Sistema Ibérico Septentrional*. Revista Zubia Monográfico Nº 6, Universidad de La Rioja, Logroño.
- P. BRUNEAU DE MIRÉ. 1964. Essai d'interprétation de la variation géographique et la spéciation chez les *Nebria* orophiles du nord-ouest de la Péninsule Ibérique. *Revue Française d'entomologie*, 31(1): 18-35.
- DENDALETCHE, C. 1973. *Guide du naturaliste dans les Pyrénées Occidentales*. Delachaux et Niestlé éd., Neuchâtel.
- GALÁN, C. 1993. Fauna hipogea de Guipúzcoa: su ecología, biografía y evolución. *Munibe*. Sociedad de Ciencias Aranzadi. San Sebastián.
- JEANNEL, R. 1941. *Faune de France. Coléoptères carabiques* première partie. Paul Lechevalier et Fils, Paris.

- ORTUÑO, V.M. & J.M. MARCOS, 2003. *Los Caraboidea de la Comunidad Autónoma del País Vasco.* Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ZABALLOS, J.P. & C. JEANNE. 1994. *Nuevo catálogo de los carábidos (Coleoptera) de la Península Ibérica.* Monografías de la Sociedad Entomológica Aragonesa, 1.



- Fecha de recepción/Date of reception: 23/10/2006
- Fecha de aceptación/Date of acceptance: 15/03/2007

